

## 8- FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduerak, bezeroekiko harremana eta aplikazioaren eragingarritasuna bermatzea, familiak bilatzen duten irakasleak eskaintzea eta irakasleei lana lortzen erraztea dira.

Alde batetik, irakasleei lana bilatzen laguntzeko zenbait faktore edukiko dugu kontuan:

- Elkarrizketak skype bidez egitea; ondorioz, denbora aurreztuko dugu eta gure lehenengo ezagutza aurrez aurre izango da, hori oso garrantzitsua baita guretzat.
- Aplikazioa eragingarria egitea. Horrela, haiek haien ikasketak jarriko dituzte beren gustura erakargarria egiteko.
- Irakasleek %20 ordainduko digute hileroko familiek ordaintzen dieten soldatetik. Hala ere, familiek irakaslea gehiago behar ez duenean, hark ez liguke ordaindu behar lana lortu arte.

Adibidez: Mikelek (25 urteko mutila) gure aplikazioaren bezeroa da eta hilabete honetan Gonzalez jaunak bere zerbitzuak kontratatzea erabaki du. Mikelek hilabetearen amaieran soldata jasoko du eta %20a guretzat izango da. Hilabeteak pasata, Mikelek emandako klaseak hain onak izan dira non Gonzalez jaunak bere alaba asko hobetu duela ohartarazi den. Hortaz, hurrengo hilabetean Mikelek ez du lanik edukiko ezta soldatarik ere ez, beraz, hilabete horretan Mikelek ez digu dirurik eman beharko aplikazioan bezero moduan egon arren.

Beste alde batetik, familiek haien eskura izango dute irakasle guztien artean bilatzen dutena eskuratzeko. Edozein arazoa egotekotan gure ardura izango da, hala ere, konfiantza osoa eta segurtasun osoa jarri dugu arazorik ez egoteko. Familiek aukera izango dute gurekin nahi duten elkarrizketa beste edukitzeko eta aukeratzen duten irakasleen profila ezagutzeko ere, izan ere, haien umeez edo haien segurtasunaz hitz egiten ari gara.

Bestalde, guk aplikazioaren softwarea sortzeko kanpoko enpresa bati eskatuko diogu. Aldi berean, gure eskaeren berri egingo diogu baita gure aplikazioaren funtzionamendua azaldu ere. Horrela, azken emaitza gure ideien oso antzekoa izango da eta bezeroei azaltzeko askoz errazagoa.



